



Josu
Landeta
Egurrola

Peru
Vidal
Gurrutxaga



ESAMOLDEEKIN LOTZEN



Doinua:

Azpeitiko neskatxak
Hiru puntuko kopia

Bertsolariek kopia bakoitzean egoera bat deskribatuko digute.
Ea lotzen dugun egoera bakoitza pare-parera datorkion esamoldearekin.

ESAMOLDEAK

-Berakatzatza baino finagoa naiz
-Begitan hartu nuen
-Kale egin nuen
-Zirt edo zart egin beharko dut

-Lekutan nago
-Gogoz kontra ari naiz
-Amaren gonapean bizi naiz
-Aho bete hortz gelditu naiz

Lasterketan korrika
nenbilela bitxi
indarrik gabe nuen
bide ertzean etsi
faborito nintzen ta
azkena iritsi.

Esamoldea

Nota onak izatea
ez daukat hain errez
kalera joan nahi nuke
ibiltzeko barrez
baina etxean ikasten
nabil derrigorrez.

Esamoldea

Irakaslea oihuka
a zelako gerra!
Hari haserre bota
nion berba okerra
orain harentzat ez naiz
konpainia ederra.

Esamoldea

Athletic izan dugu
Championsen nagusi
hori entzun eta ez
dut flipatu gutxi
horrelakorik ez dut
sekula ikusi.

Esamoldea